



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**  
Euskara biziberritzeko  
ikergunea

---

# Soziolinguistika albistaria

---

**144. zenbakia**

2023ko maiatzak 19 – ekainak 1

---

## Soziolinguistika Klusterreko albisteak

### **"Gazteak mintzo" Euskal Soziolinguistika Jardunaldiko bideoak ikusgai**

Apirilaren 25ean Hendaian egin zen jardunaldiko hitzaldiak eta mahai-inguruak ikusteko eta jardunaldian bertan baliatu ziren aurrez grabatutako bideoetara iristeko aukera eskaintzen da Soziolinguistika Klusterraren webgunean.

### **2022ko Txillardegui-Hausnartu Soziolinguistika Sarietan nabarmendutako lanak Bat aldizkariaren 126. zenbakian irakurgai**

Txillardegui-Hausnartu Soziolinguistika Sarien 2022ko edizioan aurkeztutako lan mamitsuekin osatu da Bat Soziolinguistika Aldizkariaren 2023ko lehen zenbakia.

### **Anik Nandiren aurkezpena Soziolinguistika Klusterraren barne mintegian**

Ikerlari indiarrek ibilbide esanguratsua garatu du soziolinguistika ikerketan Eskozian, Irlandan eta Galizian. Gaur egun Euskal Herriko Unibertsitatean dihardu.

## Ikerketak

### **Kebir Colmenero: "Txikitatik bermatu behar dugu hizkuntza bat jatorriz ez hitz egiteak ez duela inolako arazo edo konnotazio negatiborik"**

[UEU] Kebir Colmenerok (Santurtzi, 1995) Ingeles Filologia ikasi zuen eta ondoren, hizkuntzen jabeakuntzaren inguruko masterra egin zuen. Euskara irakasle natibo eta ez-natiboen gainean ikasle, guraso eta irakasleek duten iritzi eta jarrera du aztergai tesian.

### **«Hizkuntza guztiek balio instrumental berak dituztela erakutsi du ikerketak»**

[NAIZ] Gasteizko Miguel de Unamuno institutuan Ikerketa Batxilergoa eskainiko dute datorren ikasturtean. Aurten, batxilergoko bigarren mailako lau ikaslek, atariko modura balio izan duen ikerketa bat egin dute, besteak beste, 45 hizkuntza identifikatu dituzte ikastetxean.

### **Census of Population 2022 - Education and Irish Language**

[CSO] The census questions on education allow the CSO to produce statistics on the length of time people stay in education and the relative levels of educational attainment achieved across the country and various population cohorts.

---

## Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

### **Udaltopen hamabosgarren edizioko bideoak webgunean ikusgai**

[UDALTOP] Dagoeneko ikusgai daude Udaltopen webgunean maiatzaren 11 eta 12an egin zen jardunaldiaren bideoak, multimedia atalean.

### **Hizkuntza hautuen eta generoaren arteko gurutzaketa arnaguneetan**

[UEU] Argi dago, euskararen biziberritzearen eragiteko politika publiko egokiak diseinatzeko edota arlo horretako gizarte eragileen estrategia eta ekintzak zuzen erabakitzeke, garrantzitsua dela hizkuntza hautuen eta generoaren arteko gurutzaketa hori aztertzea.

### **Osasuna eta Hizkuntza VI: Hizkuntza beharrak arreta soziosanitarioan**

[UIK] Mundu osoan ele eta kultura aniztasuna dira nagusi, 7.000 bat hizkuntza mintzatzen direlarik. Hizkuntza-aniztasuna gizadiaren berezko ezaugarritzat har daiteke. Hartara, ez da medikuntzarekin zerikusirik ez duen arloa edo hizkuntzalariei soilik dagokien jakintza-esparrua.

## Exploring Linguistic Unease in Healthcare Context»: seminari amb Nicole Marinaro (Universitat de l'Ulster)

[CUSC] Dimarts dia 23 de maig a les 16 h, Nicole Marinaro, estudiant de doctorat de la Universitat de l'Ulster, presentarà el seu projecte de tesi sobre Sociolinguistic Justice and Language Barriers: Exploring Linguistic Unease in Healthcare Context en un seminari obert al públic que tindrà lloc a l'aula 0.3 de la Facultat de Filologia i Comunicació de la UB.

## Liburuak eta artikulu zientifikoak

### Mediatika 19

[EUSKO IKASKUNTZA] Mediatika aldizkaria urtero argitaratzen den aldizkari akademikoa da, ikerlan originaletan oinarrituta. Euskarazko, espainierazko, frantsesezko eta ingelesezko ikerketak hartzen ditu, Komunikazioaren hainbat alderdi eta metodologiatan.

## Soziolinguistikari buruzko artikuluak ikergazte kongresuaren argitalpenean

[UEU] UEUren helburu garrantzitsuenetako bat izan da euskal komunitate zientifiko-intelektuala trinkotzea. Elkarren berri izatea ezinbestekoa da ezagutzak aurrera egin dezan, are gehiago gure kasuan, Ikerketan dihardugun pertsona euskaldunok, gure lanaren parterik handiena atzerriko hizkuntzetan egitera behartuta egonik, elkarren berri izatea zaila denean.

## Euskarari buruzko 2022ko bibliografia hautatua

[HABE] HABE Liburutegiak "Euskarari buruzko 2022ko bibliografia hautatua" argitaratu du. Bibliografia hau Liburutegiak egindako aukeraketa baten emaitza da, kontuan hartuta jorratzen dugun espezializazio eremua eta euskararen didaktikari, euskararen alderdi psikologikoei eta Euskal Herriko egoera soziolinguistikoari egiten diogun jarraipen estua.

*Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean HABE Liburutegira ([liburutegi@habe.eus](mailto:liburutegi@habe.eus)), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.*

## Bestelako albisteak

## UN DESA Policy Brief No. 151: Why Indigenous languages matter: The International Decade on Indigenous Languages 2022–2032

[IDIL] Languages are one of the most significant emblems of human diversity, revealing how we can perceive, relate to, and understand the world differently. Languages are vehicles of our cultures, collective memory and values.

## Normalisation of te reo Māori pushed across the board

[TEAO MAORI NEWS] The government's Māori language strategy, Maihi Karauna, is normalising the use of te reo across 200 ministries and agencies overseen by the Māori Language

## Yagan herriaren borroka, beraien hizkuntza berpizteko erronka

[NAIZ] Urte luzez baztertua izan da yaganen hizkuntza, eta orain beren hizkuntza eta nortasuna mantentzeko borrokan ari dira. 2022an hil zen yagan hizkuntzaren azken natiboa, eta orain bere birbilobaren bidez berreskuratu eta zabaltzen ari dira.

## Tove Skutnabb-Kangas hil da, hizkuntza eskubideen ikerlaria eta defendatzailea

[TOVE SKUTNABB KANGAS] Ikerketa eta argitalpen uzta oparoa utzi du ikerlariak.



SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA  
Euskara biziberritzeko  
ikergunea

Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Bazkide partaidea:

emun<sup>+</sup>  
Euskara eta  
berrikuntza soziala